

Bilbo'n, "Escuela de Artes y Oficios" deritxon
Ikasguan, 1920 'ko Lotaziñaren 26'an, goize-
ko 11'an eta aratsaldeko 7'an.

Euskerearen batasunaz Batzar - agiri - berezia
izan zan.

Maipuruan Euskaltzaindiak erabagi ebanez, Azkue,
Eleizalde eta Olabide euskaltzain jaunak jesari zirean.

Asieran Eleizalde jaunak, euskeraz, itzaldi labur-
txo baten batzar oren gora andiko gaya azaldu eban
eta ondorean txosten edo ikerpen batzuk irakuri zi-
rean. Ona emen egileen izenak:

(Goizean) Lañakoetxea eta Agirezabala'tar Sendi
Gurenaren Ipolita, K. O. (euskeraz): Gaubeka'tar Bi-
ñor, Irañkaria (euskeraz); Nicolas Cortes, Apaiz jauna
(erderaz); Ufufia'tar Gotzon, M. B. S. Urtzizti - ira-
kaslaria (erderaz).

. (Aratsaldean) Madariaga'tar Angeru. O. Pr. m.
(euskeraz). Ganera, Kanpion eta Broussain jaunak
Euskaltzaindiari gai orezaz aurkeztu eutsen lana eta
Jesus'en Lagundiko A. Ormaetxeak *Revista de Estu-
dios Vascos*-en argitaratu eban lan eder bat bere
irakuri zirean.

Azkenez, Manuel Egileor jaunak, aratsaldean ber-
tan, Euskaltzainburuari zuzendu eutsan eskutitz bat
irakuri zan. Ezkutitzaz batera amabi bat idazti *Sobre
la Unificación del Euzkera* bialdu ebazan esanaz bere
eretxia idazti oregaz batean dagoala. Idazti onen la-
burpenak Azkue jaunak irakuri ebazan eta beste barik
batzaldia amaitu zan.